

DATORRENA

Datorren hori

GORKA ELEJABARRIETA > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

«Ulertua izatea hain zaila al da?»

galdera existentzialaz MIKEL ZUBIMENDI > 9

2018ko abuztuaren 18a | XII. urtea • 582. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ROJAVARAINO, MUGEN GAINETIK

MUGARIK GABEKO MUSIKARIEK ETA GASTEIZKO LUIS ARANBURU MUSIKA ESKOLAK
SORTUTAKO MUSIKA-TRESNA BANKUKO MATERIALA ROJAVAKO ATEAN DAGO, GANI
MIRZO MUSIKARI KURDUAREN PROIEKTUAREN AZKEN ETAPAREN ZAIN. > 10

Gani MIRZO



SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Datorrena
08 **Ander Gortazar:** Ramon eta biok
09 **Mikel Zubimendi:** «Ulertua izatea hain zaila al da?» galdera existentzialaz
14 **Alai Zubimendi**
15 **Maidier Iantzi:** Zein amets zenituen?
15 **Xabier Mikel Errekondo:** Adinaren tamainak ez du inportarik
16 **Gorka Zozia:** Soluzio bakarra eta galdera pila
17 **Iker Barandiaran:** Besapean
22 **Garazi Goia:** Galdu dugun denboraz



Matxinada Bosniako Serbiar Errepublikan, gazte baten heriotzak eraginda 04

Epika modernoaren hauskortasuna 07

Mugarik Gabeko Musikarien elkartasun doinua, Rojavara iristear 10

In fraganti: Pirata Piratobich 18

Pentsiodunen borroka, oporrik gabe 21

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Datorrena

Iraila hurbiltzen ari da, abiadura bizian; udaren eta oporren amaierarekin urte politiko berri baten hasiera dator. Aukera eta arrisku zahar eta berriak. Katalunian gorabeherak, aurrerako eta atzerako pausoek jarraituko dute; ziurrenik, elkarrizketek eta negoziazioak ere beren tarte izango dute, baina, erabakitzeko eskubidea onartuko duen espainiar gobernurik ez den artean, eta egun ez dago, gatazka politikoak bere horretan jarraituko du. Diada, epaiketak eta hauteskunde munizipalak izango dira erreferentzia une garrantzitsuenak, independentziaren aldekoen erronka nagusia batasuna berreskuratu eta mantentzea izango delarik. Batasunik gabe ez dago aurrera egiterik: espainiar Estatuak ondo baino hobeto daki hori, eta bere estrategiaren helburu nagusietako bat hori bera da, zatiketa bultzatu eta areagotzea. Konponbide demokratikorako aukera errealek ez denean, konponbide prozesuek norberaren eta arerioaren indarrak eta posizioa indartu edo ahultzeko balio izaten dute. Jokoa jokatu beharra dago, baina norberaren aukerak eta helburuak, eta “etsaiarenak”, ondo ulertuta. Aurtengo Diadak, beraz, garrantzi berezia izango du (noiz ez?), aukeren eta batasunaren neurgailu paregabea izango delako.

Brexita badator eta honek Eskozian eta Irlandan izango dituen ondorioak ikusteke daude. Eskoziako kasuan bigarren erreferendum bat azkartu lezake, baina kasu honetan, Brexitak ez ezik, britainiar politika elektoralaren garapenak ere eragin handia izango du. Jeremy Corbynek zuzentzen duen laborismoaren balizko garaiaren batek independentziarako aukerak gutxitu ditzakeela pentsatzen duenik badago. Nicola Sturgeonek zuzentzen duen Gobernuak mota guztietako kalkulu politiko eta matematikoak egin beharko ditu inolako erabakirik hartu aurretik. Gure kasuan ez bezala, Eskoziak erabakitzeko eskubidea lehen erreferenduma gauzatu zuenean irabazi zuen, eta bigarrena bai ala bai galdetara irabazteko aukera errealek dituenean bakarrik egingo du. Gurearekin konparatuz, beste fase batean

daude. Galdutako erreferendumez ez dute independentzia gauzatzen eta, gainera, nahitaez Erresuma Batuekiko batasuna indartzen dute. Irlandak ez du presarik, baina emeki-emeki irlaren batasuna ekarriko lukeen erreferendumaren aldeko kanpaina darrai. Irlandak dagoeneko estatu bat dauka eta horrek bidea beste lasaitasun estrategiko batekin ikusteko aukera ematen du. Nire ustez, batasuna denbora kontua baino ez da.

Kanakyk independentzia erreferenduma egingo du azaro hasieran. Zalantzarik gabe, erreferentzia politiko garrantzitsua izango da euskaldunentzat, frantziar Estatuarekin adosturiko erreferenduma izango baita. Datozen asteak gako izango dira prozesu horretan, abuztuaren 31n bozka eskubidea izango dutenen errolda publikatuko da, eta horrek eragin handia izango du azken emaitzan. Egia da Kanaky urrun dagoela Euskal Herritik, bertako prozesuari jarraipen txikia egiten zaiola gurean, baina esango nuke politikoki pentsatzen duguna baino hurbilago gaudela bi herriok: arerio bera daukagu, Estatu frantsesa, eta horrek bakarrik fokua bertan jartzera behartu beharko gintuzke.

Flandriak aurrera darrai, ohi bezala zarata handirik egin gabe, isil-isilik baina aurrera. 2019ko maiatzean, egun berean, hauteskunde federalak (belgikarrak), erregionalak (Flandria, Valonia eta Brusela) eta europarrak dituzte. Flandria eta Valonia arteko diferentzia estruktural, ekonomiko, politiko, kultural, linguistikoek... bere horretan darraite. Ikusi beharko da gobernu federal bateratu bat gauzatzerik baduten edo berriro diferentzia guztiok azaleratzen diren. Bitartean, inkesten arabera, N-VA alderdi abertzaleak bozkatuena izaten jarraituko du bai Flandrian bai Belgikan.

Euskal Herrian, gertakariok gertutik jarraitu ez ezik, mugimendu eta herriokin ditugun harremanak indartu beharko genituzke. Batetik, Estatu espainiarrari zein Estatu frantsesari begira, presioa areagotzeko, eta, bestetik, Europari begira, benetako elkarlan eraginkorra abiatzeko. •

Datozen gertakariak jarraitu ez ezik, mugimendu eta herriokin ditugun harremanak indartu beharko genituzke

BOSNIAKO SERBIAR ERREPUBLIKA

Ikerketa serio bat egiteko exijitzen diete herritarrek Banja Lukako agintariei gazte baten heriotzaren harira

JENDARTEA / joseangel.oria@gaur8.info

David Dragicevic Informatika ikaslearen heriotzak ezagun egin du gaztea Bosniako Serbiar Errepublikan, agintarien eta ustelkeriaren aurkako matxinada baten ikur bihurtzeraino. Davor aitak, beste biktima batzuen familiekin batera, astero adierazten du bere haserrea Banja Lukan zein Sarajevon egiten diren protestaldietan.

David Dragicevic 21 urte zituen joan den martxoaren 18an desagertu zenean. Gorpua Banja Luka ibaiaren bazterrean aurkitu zuten handik sei egunetara. Ondoren Poliziak istri-

puaren hipotesia erabili zuen heriotza esplikatzeko, baina gaztearen familia ez zegoen konforme. Erail egin dutela diote Daviden etxean, eta bertako herritar askoren iritziz, familiak esaten duena sinesgarria da Banja Luka Bosniako Serbiar Errepublikako hiriburuan.

Davor Dragicevic-ek, Daviden aitak, bere semearen kasuan justizia egiteko exijitzen du. Irudiotan Banja Lukan orain aste batzuk egindako protestaldian ageri da.

Elvis BARUKCIC | AFP





Poliziaren baldarkeria eta gardentasun falta salatzen dute azken asteotan kalera protesta egitera irten diren milaka herritarrek. Beste ikerketa bat egiteko eskatu dute, eta Gobernuari, gauzak diren moduan azaltzeko. Eta kaleak manifestariz bete dira, 2014az geroztik gertatu ez zen moduan gainera, kronikak diotenez.

Dragicevic Informatika ikaslea zen, beste ikasle askoren modukoa, aparteko konturik gabea. Bere heriotzak ezagun egin du ordea, agintarien eta ustelkeriaren aurkako matxinada baten ikur bihurtzeraino.

Hauteskunde garrantzitsuak egiteko hiru hilabete baino gutxiago falta direnean, gertakizun ilun hori da Bosniako zati den errepublikako arazo politikorik larriena. Baina uztailearen 7ko mobilizazioak badu aipatzeko moduko ezaugarri bat: bertako serbiarrekin batera, kroaziar eta bosniar

ugarik ere esku hartu zuten protestaldian, milaka lagun elkartzera iritsiz. France-Presse agentziak egin duen irakurketaren arabera, asteotako giza mugimendua oso ezohikoa da 3,5 milioi biztanle dituen Bosnian, 100.000 hildako eragin zituen gerra nolabait –zauri asko odoletan utzita– itxi zuen egunetik mende laurdena pasa denean. Bosniako bizitza politikoa komunitateen arabera antolatzen ikustera ohitutako begiraleek Banja Lukako erakustaldiaren aniztasuna nabarmendu dute.

«GHETTOKO GAZTEA»

Bestalde, munduko zenbait lekutan izaten diren Poliziaren gehiegikerien aurkako mugimenduekin (AEBetako eta Estatu frantseseko gazteen protestaldiak oihartzun handia lortu izan dute) ere badu loturarik Balkanetakoak. Gauero ehunka lagun elkartuta «Egia

eta justizia» exijitzen duten manifestari gazteek «Klinac u getu» (Ghettoko gaztea) izenburuko abestia entzuten dute, hildakoak berak idatzitakoa. Parte-hartzaile askok David Dragicevicen erretratua duen kamiseta daramate jantzita, bere rasta eta guzti. Elkartzen diren puntuari izen berria jarri diote: «Daviden plaza».

Banja Lukan hildako gaztearen kanta bere egin du Dubioza Kolektiv musika konprometitua egiten duen talde

Ehunka lagun elkartuta «Egia eta justizia» exijitzen duten manifestari gazteek «Klinac u getu» (Ghettoko gaztea) izenburuko abestia entzuten dute, hildakoak berak idatzitakoa

«Kriminalak, hiltzaileak, Justiziaren eskuetan amaituko duzue», oihukatzen du aitak eskuin ukabila jasota. «Hiltzaileak», erantzun dute gainerako manifestariak

ezagunak. 2014ko protestaldietan borroka sozial eta politikoen eledun izan zen banda rockzalea, «Bosniako gizartearen arazo propioei ahots emateko» jaio zen orain hamabost urte. Hip-hop, reggae, dub, ska, rock eta bertako folklorea nahasten ditu bere abestietan.

Davor Dragicevic 49 urte dituen tabernako zerbitzaria da Daviden aita. «Semea erail» egin diotela esaten du eta garbi dauka ustezko erailketa horren konplize direla polizia eta epaile jakin batzuk. Errudunen izenak bata bestearen atzetik aipatu ditu. «Kriminalak, hiltzaileak, Justiziaren eskuetan amaituko duzue», oihukatzen du eskuin ukabila jasotzen duen momentuan. «Hiltzaileak», erantzun dute gainerako manifestariak.

Poliziak hasiera batean esan zuen hildako gaztea droga kontsumitzailea zela, kalamua eta LSDa aipatuz. Baina manifestarien artean beste bertsio bat zabaldu da: borrokan aritu zen gaztea Banja Lukan sekulako boterea duen familia bateko seme batekin. Ez daukate frogarik, ordea.

«Agintariak ez dakite nola aurre egin horrelako fenomeno bati, erlijioaren eta komunitatearen araberrako zatiketa atzean uzten baitu, agintean dauden etnonazionalistek egin ezin dutena», adierazi du Tanja Topic analista politikoak.

Tijana Cvjeticanin ekintzaileak errepublikako agintariak giza mugimenduekin normalean zer egiten duten azaldu du NewsMavens emakume kazetariak egindako hedabidean: «Sozialdemokrata Independenteen Aliantzak eta Milorad Dodik buruak Bosniako Serbiar Errepublikak modu autoritarioan gobernatu izan dute azken hamar urteotan. Desadostasunei

aurre egiteko errutinazko estrategia bat ezarri dute: protestaldiren bat sortuz gero, beraien aldeko hedabideen bitartez bideratzen dute mezua, helburu politikoekin manipulaturik dauden protesta dela esanez. Kasu askotan, tankerako baieztapenekin batera esaten dute zerbitzu sekretuak eta nazioarteko aktoreak Dodiken Gobernuaren aurkako kolpe bat eman nahian dabiltzala, eta manifestariak eragile horien txotxongi-loak baino ez direla».

Horixe gertatu zen apirilean: aginteak hedabideak erabili zituen herritarrak itsutzeko, baina agintariei zerbait gaizki ateratzen zitzairen. Hilaren 21erako deituta zegoen protestaldiaren harira, Serbiako egunkari batek mobilizazioa zapuztea helburu zuen artikulua argitaratu zuen, eta berehala errepublikako hedabide askok eman zuten argitara. Beste kasu askotan arrakastatsua izan den estrategiak porrot egin zuen apirilean, ordea. Dragicevicen heriotzari buruzko beste ikerketa bat egiteko eskatzen zuten milaka lagun elkartzeko ziren.

DZENAN MEMIC

Gainera, Interneten ere zabaldu da «Justizia Davidentzat» leloa. «Pravda za Davida» izeneko Facebookeko taldea bosnieraz, kroazieraz eta serbieraz aritzen da eta 323.000 lagun ditu, Banja Lukan bertan zein hiritik kanpo. Mobilizazioak beste eskualdeetan ere egin izan dira. Errepublikaren iparraldean dagoen Dubica herria (23.000 biztanle), esaterako, 1.300 lagun dituen talde bat sortu zuten. Modrica ere iparraldean dago eta maiatzaren 8an bertako plaza bete egin zuten manifestariak, herriak 28.000 biztanle baino ez baditu ere. Manifestari askok



eskuin ukabila jasotzen zuten, David Dragicevicen aitak egiten duen moduan.

Manifestariak Dzenan Memicentzat ere eskatzen dute justizia. Sarajevo Bosniako hiriburuan hil zuten 2016ko otsailean, baina ofizialki zirkulazio istripu baten biktima izan zen gaztea. Familiak gertatutakoa argitzeko exijitzen

du eta zenbait manifestazio egin dira beraiekin bat eginez. Aurtengo maiatzaren 16an egin zen protestaldian Davor Dragicevicek esku hartu zuen, Muriz Memic gaztearen aitari elkartasuna adierazteko. Sarajevo horrek agintariei leporatzen die bere semea hil dutenak babestea. Banja Luka-koaren hitzak nabarmentzeko

modukoak dira: «Serbiarra naiz, kristau ortodoxoa; nire semearen hiltzaileak ere serbiarrak dira. Kriminalek eta hiltzaileek ez dute ez erlijiorik ez hiritartasunik. Beren interesa baino ez dute».

Sarajevoko gehiengoa bosniar musulmana da, eta Davor Dragicevic serbiarra eta kristau ortodoxoa, baina ezber-

dintasun horrek ez du saihestu manifestariak bat egitea. Guztiek dituzte arrazoiak agintariekin konfiantzarik ez izateko. Itzultze Jasangarriaren aldeko Batasuna izeneko gobernu kanpoko erakundeak egiten duen analisiaren arabera, Bosniak bizi duen egoera hondamendiren batekin alderatzeko modukoa da eta horregatik horrenbeste bosniarrek migrazioaren bidea hartzea erabakitzen dute: 150.000 lagunek azken bost urteotan. Ustelkeria herrialdeka neuritzen saiatzen den Nazioarteko Gardentasuna elkarteak, berriaz, Bosnia 91. postuan ipintzen du, Kosovo bera baino atzerago. EB Europar Batasunak egin duen azken txostenean ere gaitz bera aipatzen da: ustelkeria orokortuta dago, batez ere Justizia Administrazioan. Justizia estutuz gero, giza eskubideen arloan ere aurrera egitea lortuko litzateke, EBko arduradunen iritziz.

Tanja Topic kazetari eta analista honako irakurketa egin zuen «Vreme» Belgrad Serbiako hiriburuko astekari independentean orain aste batzuk: «Davidentzat Justizia» portara kolektibo berria da, erabat berria eta ezberdina. Zaila da hemendik aurrera zer gertatuko den esatea. Apirilaren 21ean egin zen protestaldi handian, orain bi urte Banja Lukan Gobernuak aurrea eta oposizioak gero egin zituzten bi mobilizazioetan baino jende gehiago elkartu zen. Manifestariak, Davidentzat justizia exijitzeaz gain, argitu gabeko gainerako erailketa guztiak argitzeko eskatu zuten. Banja Lukako plazan zatiketa etniko eta erlijioso guztiak ezabatuta geratzen dira. Eta hori arazo larria da agintean dauden etnonazionalistentzat».



Valery HACHE | AFP



IKUSMIRA

EPIKA MODERNOAREN HAUSKORTASUNA

Genova Italiako hiri harro zoragarria da, "La Superba" bezala ezagutzen dena. Portu hiri ederra da, interesantea oso, historia izerditzen du nonahi, arkitektura eta azpiegitura indartsu askoak ditu. Hiriak ondare moderno ere bazuen, bere biztanleek ez zutena beti behar beste baloratzen: Morandi zubia, egitura eder, dotore, lerden eta zinez altua, munduko beste ingeniariaritz lan ikonikoen pareko zena. Milaka eta milaka jendek igarotzen zuen egunero Frantziatik Italia erdialdera eta hegoaldera joateko igaro beharreko zubia. Duela bost egun erori zen Morandi zubia, eta tragediaren horroreak eta biktimen saminak guztiok kolpatu gaitu. Goiz da zergatiak jakiteko, halakoetan askotarikoak eta aldiberekoak izaten baitira. Egiturazko akatsak, proiektuaren sortze bereko kalkulu okerrak, berriki egindako handiagotze lanak, erosioa, korrosioa... batek jakin! Edonola ere, hain baloratua den Genovaren iragan historikoaren parez pare, epika modernoaren hauskortasunaren lekukotza bortitza utzi digu Morandi zubiaren kolapsoak. Mikel Zubimendi Berastegi



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Ramon eta biok

azko MUGAK bienalaren baitan, mahai beraren bueltan ipini zituzten Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Ramon Saizarbitoria eta Fernando Savater, hiriari eta literaturari buruz solas egin zezaten. Bi ordu luzez aritu ziren hizketan; onerako edo txarrerako, gauza asko esan daitezke 145 minututan.

Gogoeta batzuekin oso ados –esaterako, Canok «*retranqueado*» esan zuenean–. Beste batzuekin, Ramon, ba ez horrenbeste. Izan ere, Saizarbitoriak esan zuen gutxi-asko Donostia hiri orekatua dela, eta erdialdearen eta periferiaren arteko aldea ez dela oso handia, Bilborekin konparatzen badugu bederen –Bilborekin konparazioa egitea oso tik donostiarra da–. Txabolismorik ere ez duela izan esan zuen, eta, izatekotan, fran-

kismo amaieran Prim kaleko eraikin ederren gainean eraiki ziren handitze zatar horiek osatzen dutela Donostiako txabolismoa. Ez dakit baina nik. Gros «urruti» eta Ategorrieta «tokitan» zegoen leku eta garai batean jaiotakoa da gure idazle *ramegantea*, baina hori ez da zirkunstantzia aringarria.

Edonola ere, goranzko zabaltzeak –ez dugu oraindik topatu gaztele-razko *levante* esateko hitz erosoagorik– kontu oso ohikoak dira. Galdera izan ohi da ea azpian duten eraikinaren «estiloa» jarraitu behar duten, ala, kontrara, arkitektoa libre ote den sudur puntan jartzen zaion lengoaia erabiltzeko. Eraikin bat albo batera zabaltzen denean, esaterako, ziurtzat hartzen da handitze hori estetikoki independentea izan daitekeela –Bilboko Arte Ederren Museoa datorkit gogora–. Aldiz, gora zabal-

du beharra dagoenean oro da erreparo.

Salamanca pasealekuko 2. zenbakia paradigmaticoa da. Behe oina, bi pisu eta teilatu zorrotzeko jauregitxo klasikoa zen jatorriz. Gora zabaltzeko garaia iritsi zitzaionean eraikina akordeoi baten moduan luzatzea erabaki zuten: lehenengo pisua lau bider kopia, bata bestearen gainean jarri, eta goian kokatu zituzten ordura arte bigarren pisua eta teilatua zirenak, azken hau edeki puztua. Argudia liteke bi eraikinak, zaharra eta berria, antzekoak direla, Espainiako bandera eta Kataluniakoa antzekoak direla argudia litekeen modu berean.

Bitartean, Matia kaleko 38.ean estrategia bestelakoa izan zen. Behe solairua gehi hiru pisuko hareharritzko eraikina zen jatorrizkoa, modu erregularrean antolatutako leiho altu eta balkoi estuduna. Baina arkitektoari bost axola horrek, eta altzairuzko egituradun bi pisuko pieza iluna eraiki zuen gainean –dotorezia handiz, ene uste apalean–, baita hirugarren pisu bat ere, Canoren belarriak goxatuz bezala, *retranqueado*, kaltetik ez ikusteko modukoa. Balkoirik ez baina badu bolumen irten bat, jatorrizkoak ez duena, eta leihoak jolas-tiagoak dira, jatorrizkoan ez bezala.

Saizarbitoriaren ustez, Donostiako teilatuen gainean eraikitako «txabolismo» hori da Donostiak duen gauzarik okerrera. Zenbat buru, hainbat aburu, baina ez gara ados jarriko Ramon eta biok, goranzko zabaltzeak –Prim kalekoak barne– Donostiako gauzarik interesgarrien zerrendan daudelako, Martutene baino koska gutxi batzuk gorago. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

«Ulertua izatea hain zaila al da?» galdera existentzialaz

Ez dakit mugimendu politikoek unibertsal-ki hitz egiteko duten joera horregatik den edo ez. Baina aspirazio unibertsal batekin hitz egiteak ez du perfektu hitz egin behar denik esan nahi. Ez dakit eredugarri izateko grinagatik edo kontraesanen eta desadostasunen lokatzetan ez zikintzeko engainu horregatik den edo ez. Baina eredugarri izateko konbultsio artifizial hori baino premisa zapaltzaileago gutxi ikusten ditut politikan. Ez dakit mundu digitalagatik, *on line* idatzi eta hitz egiteko baldintza berriengatik den edo ez. Baina identitate bat etengabe ordezkatu behar horrek presioa areagotzen duelakoan, existentziaren baldintzak okertzen dituelakoan nago.

Azken finean, «hain zaila al da ulertua izatea?». Perfektu, eredugarri eta identitate bat ordezkatzuz ibili behar al da beti politikan? Eta kiribil horretatik ihes egiteko, naufragoez ohol puska topatu arte bezala, ez ote dugu aterabiderik? Bihoa aitorpena: desorientatu egiten nau ideia horrek. Norabait doan bide batean gaudela baino, kartzela bateko patioan bezala zirkuluan bueltaka eta bueltaka gabiltzala ematen dit jakitera. Betiko borroka berdinen errepikapen betean gaudela, hortik pasata gaudela jada, behin eta berriz. Eta jakina, ideia hori sustraitzen bada, pentsa daiteke, ezkor pentsatu ere, ametsaren ildo oso geldoa izango dela. Eta?

Niretzat, iraultza trankil eta geldoa eta denetan iraultza erradikalena ez daude kontrajarrita. Badakidalako muga emozional handi bat dugula denok: bizi esperantzarena. Badakidalako bizitza ez dela eskubide bat, pribilegio bat baizik. Sortzez eta ekinez garbi, perfektu eta eredugarri iraultza bizitzaren ardatz egin nahi duenarentzat, gogorra behar du bere amets asko gauzatu baino lehen hil egingo dela onartzeak. Hobe

luke, gomendioa onartzen badit, modu batean ala bestean, irrika horrek bizitzaren denbora guztia hartuko diola kontziente izatea, eta, hildakoan ere, iraultza ez dela gauzatuta egongo, natural-natural barneratzea. Eta horregatik, errealitatearen azterketa edo etsamina ez pasatzeak ez ditu ametsak hutsalago, balio gutxiagoko, egiten. Denok pentsatu izan dugu noizbait gauzak joan direna baino azkarrago joango zirela, azkenean, literalki, ohartzeko bataila berak, argudio eta eskema berekin borrokatzen ari garela. Jendeak, aldatu baino, aldatu izanaren plantak egiten dituelako. Besteak beste, dauzkagun orbainek eta eragindako zauriek trokelatu gaituztelako.

Perfekzioa akatsez beteta dago. Hitz biribiletan, existentzialetan, ezin gaitezke ito. Izan ere, maitasuna puzker baten modukoa da: gehiegi estutu eta behartzen bada, azkenean kaka ateratzen da

Horixe baietz, ideiak oso boteretsuak dira, bai. Onerako zein txarrerako. Droneek ezin dituzte ideiak detektatu, hegazkin bonba-jaurtitzaleek ezin ditzakete ideiak mila pusketan txikitu. Eta jakina perfekzioa akatsez beteta dagoela! Hitz biribiletan, galdera existentzialetan ezin gaitezke ito. Eta ze kristo, maitasuna puzker baten modukoa da! Gehiegi estutu eta behartzen bada, azkenean kaka ateratzen da. Horregatik, kontua ez da soilik Estatua konfrontatzea; lotsaraztea eta hartaz trufatzea ere bada, pertseberantzia, poza eta kontakizun propioa zabalduz. Bere ideiak, bertsioak, gerrak... fatalismo hori erosteari uko eginez. Niretzat, Euskal Herri librea ez da bakarrik posible, bidean dator. Belarria jarri eta nola arnasten duen aditu besterik ez dugu. •

ELKARTASUN DOINUZ

Mugarik Gabeko Musikariek bidalitako musika tresnak, Rojavako atean

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Gani Mirzo Mendebaldeko Kurdistan-go musikaria da. Duela hoge urte baino gehiagotik bizi da Bartzelonan, baina Siriako gerra du gogoan etengabe. 2014an, “Kampo Domiz” diskoa argitaratu zuen eta bere musikarekin lortutako dirua errefuxiatuen esparruetako jendea laguntzeko baliatu zuen. Duela bi urte, bere jaioterria bisitatu zuen, eta «suntsipena, pobrezia, miseria ikaragarria» aurkitu zuen. Hala ere, Qamixli bere jaioterrian alaitasun eta itxaropen «uharte» bat ere aurkitu zuen: musika eskola bat. Horregatik, eskola horretako haurrak eta oro har Siriako gerra jasaten dutenek musika

hezkuntza jaso dezaten laguntza helaraztea otu zitzaion.

Bartzelonara itzulita, Jesus Mari Alegria Urriaga *Pinttu* arabarra ezagutu zuen, hau ere musikaria eta Mugarik Gabeko Musikariak gobernuz kanpoko erakundeko presidentea. Garai

Rojavan eta inguruetan eguneroko bizitza gerra duten umeek zein herritar behartsuenek munduan aintzat hartzen dituen norbait badela jakiteko aukera izango dute laster. Gasteizko musika-tresna bankuko materiala Irak aldeko Kurdistanen dago jada. Gani Mirzo musikari kurduak Euskal Herriatik eramandako elkartasuna.

hartan Pintturen erakundeak lankidetzak akordio bat sinatu zuen Gasteizko Luis Aranburu musika eskolarekin, Araban zein munduko edozein lekutan hainbat ekimen solidario aurrrera eramateko. Horietako bat, musika-tresna banku bat sor-

Gani Mirzo, Kobanin, bertako bi umerekin.
Gani MIRZO

tzea, Gani Mirzoren proiektua gauzatzeko, hain zuzen. Mendebaldeko Kurdistanen eta Sirian zehar gerraren ondorioak jasaten dituzten haurrentzako musika tresnak eramatea eta bertan musikaren irakaskuntza sustatu eta laguntzea zen helburua. Luze gabe, Gasteizko Kontserbatorioak eta Udal Folklore Akademiak bat egin zuten proiektuarekin, baita Bilbo, Donostia eta Iruñeko udal musika eskolek eta Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak ere.

BIDAIA GORABEHERATSUA

Joan den urtarrilean Pinttuk GAUR8ri esan zionez otsail amaieran abiatzea espero zuten bidaia, lehendabizi martxora arte atzeratu zuten, Turkiako Armadak kurduen aurkako erasoak gogortu baitzituen. Ostean, garraioaren garestitasunak eta beste zenbait arazok berriro atzeratu zuten bidaia, baina, azkenean, ekainaren 8an, Donostiatic atera ziren.

Musika tresnak orain Irak aldeko Kurdistanen daude, «leku seguruan», laster Rojavan, Mendebaldeko Kurdistanen, entregatzeko prest. Gani Mirzorekin hitz egin dugu.

Mirzo, Fran Lasuen euskal musikari eta Mugarik Gabeko Musikariak Bizkaiko arduradunarekin batera Europa, Turkia eta Iraken zehar hamaika oztopo gainditu ondoren, Bartzelonan dago bueltan lan kontuak direla-eta, baina hilabete erdi barru bidaiaren azken etapa burutzera itzuliko da. Irail amaieran tresnak Rojavan egoitea espero du, Qamixlin, hain zuzen, handik errefuxiatu esparruetara zabaltzeko.

Nahi baino askoz gehiago luzatu den bidaia Gasteizen hasi zen. Tona bat tresna garraiatzea ez da erraza, ezta merkea ere. Tresna guztiak Donostiara era-





man zituzten eta handik Düsseldorfera (Alemania) abiatu ziren. Hiri horretan bat egin zuten helmuga bera zuen kamioi karabana batekin. Turkiako etapa labaina da baina, kurduen aurkako ofentsiba betean baitabil herrialde horretako Armada. Afrinetik 250.000 lagunek alde egin behar izan dute, eta besteak beste eskola bi ere bombardatu dituzte. «Ume horiei, gerra eguneroko ogi duten ume horiei, artean hezteko aukera ematea da helburua, artearen bidez euren bizitzan irtenbide bat izan dezaten», dio Mirzok.

Irakeko mugan denbora asko galdu zuten. Turkia eta Irak arteko muga itxita zegoen, eta Kurdistandik sartu behar izan zuten, mila kilometro gehiagoko bidea eginda. Uztail amaieran, tresnak zenbait astez aduanan atxikita egon ondoren, berri ona bidali zion Mirzok Pintturi Qamixlitik: musika-tresnak helmugara iristear dau-de, Rojavara pasatzeko baime-na dute-eta.

JAIO TERRIA, SUNTSITUTA

Gani Mirzok Qamixli, Kobani eta Rojavako beste zenbait leku bisitatu ditu. Estatu Islamikoaren ikaragarrikerien ondorioak,

Kobaniko
hondamenditik,
Qamixliko «uhartera».
Gani MIRZO



oro har gerraren ondorioak ikusi ditu. Eskualdean familia du Mirzok, anai-arrebak, batzuk errefuxiatuta. Estatu Islamikoaren hiriburua izan zen Al-Raqan ere izan da. Nola topatu duen ingurua galdetuta, «hondamena nonahi, pobrezia, laz-tura...», diosku.


Irrikitzen dago, obsesionatuta, umeengana, jende behar-tsuenarengana iristeko. «Munduak jakin behar du herri

kurduak musika maite duela». Musika tresnak besterik ez ditu eskatzen eta «istorio txundigarriak» ikusi dituela dio. Musikari elbarrien talde batekin egon zen, gazte bati ea zer desirazuen galdetu eta hark berehala erantzun zion: «biolin bat».

Kobanin Rashid Sofi musikariarekin izan zen, GAUR8ren ale honetako lehen orrialdean meskita baten hondamendien

artean lautea jotzen ageri dena. «Sofi Kobanikoa da, Rojavako musikaririk handienetako bat».

Bartzelonan kontzertu bat egin berri dute misioa bukatzen laguntzeko, eta hunkituta ageri da Mirzo sumatu duen elkartasunagatik. Esker ona agertzen die, halaber, Mugarik Gabeko Musikariei. «Euskal Herriko elkartasuna eskertzen dut. Elkartasunak balio izan dezala Euskal Herriaren eta herri



kurduaren kulturak hurbiltzeko, gure harremanak estutzeko». Halaber, dei bat egin die politikariei, kolaboratzeko.

PROZESU LUZEA

Mirzorekin hitz egin ostean, Pinttuk hartu du telefonoa. Egiten ari diren filmaz hitz egin dute elkarrekin. Izan ere, haien kezka material guztia iritsi dela erakustea da. Film labur hori bidaia osoaren eta material musikalaren iritsieraren lekuko izango da. Filma finantzatzeko gizartearen laguntza behar dute, jakina, horregatik edozein lekutako musikariei laguntza eskatu zieten kontzertuak egin ditzaten; halaber, Mugarik Gabeko Musikariak Banda Sinfonikoak disko bikoitz bat ere argitaratu zuen, “Los Derechos Humanos a bombo y platillo”.

Materiala garraiatzeko ez ezik, biltzeko ere izan dituzte hamaika arazo eta oztopo. Bidaia atzeratzeak, edonola ere, aurreikusita zuten baino askoz tresna gehiago biltzea ahalbidetu zuen (baita lana biderkatzea ere). 200 musika tresna inguru eraman dituzte: biolinak, tronpetak, tubak, soinuak, pia-

Goian, Jesus Mari Alegria Urtiaga, «Pinttu», GARAKo erredakzioan. Eskuinean, berri, Gani Mirzo, zenbait musikari elbarrirekin. Lerroon ondoan, neskatala bat Kobaniko hondamendiaren erdian. GAUR8 - Gani MIRZO



Qamixli, Kobani eta Rojavako beste zenbait leku bisitatu ditu Gani Mirzok. Jaioterria nola topatu duen galdetuta, «hondamena nonahi, pobrezia, laztura...», diosku musikari kurduak

Garrantzitsuena, Pintturen ustez, «ume haiek munduan aintzat hartzen dituenik badela jakitea da. Zer egin duten, zergatik gurasoak hiltzen dizkieten galdetzen diote beren buruari»

noak... Bestetik, musika material ugari ere eraman dute, hala nola, atrilak, partiturak, gitarra sokak edota biolin sokak. Material guztia biltzeko Gasteizko Udalak utzitako lokal bat erabili zuten, betiere presiopean, erabilera epea luzatzeko erregutuz. Tresna batzuk bertan jasoz zituzten, baina beste batzuk jasotzera joan behar izan zuten,

Euskal Herriko zein kanpoko hainbat lekutara, Estatu espainoletik ere jaso baitute laguntza. Bestalde, Euskal Herriko musika eskolek eta musikari askok kontzertuak antolatu izan dituzte proiektua laguntzeko. Pinttuk bere esker ona agertu nahi die guztiei, eta Gasteizko Luis Aranburu Eskolako zuzendari Paco Galvek Principal antzokian eman zuten urteko kontzertu nagusian ateratako diru guztia elkartasun bidaia finantzatzeko eman zuela dio, edo Iruñeko Musika Eskolako lagunek tresnak Gasteizera ino eraman zizkietela...

Helmugara iritsita, han orkestra sinfoniko bat eratzeko asmoa dute, «eta txistulari banda bat ere osatu nahi dugu», dio Pinttuk. Garrantzitsuena, haren ustez, «ume haiek munduan aintzat hartzen dituenik badela jakitea da. Eurek ez dute ulertzen munduan zer gertatzen den. Zer egin duten, zergatik gurasoak hiltzen dizkieten galdetzen diote beren buruari. Tresna hauek haien zentzuzko diru. Errefuxiatu esparruko haur batek biolin batekin lo egin dezala».

MUSIKAK EZ DU MUGARIK, ELKARTASUNAK ERE EZ

Asko eta askotarikoak dira Mugarik Gabeko Musikariak gobernuz kanpoko erakundeak abiatu dituen proiektuak, 1995ean Jesus Mari Alegria «Pinttu» bere presidenteak Kubatik erakundea sortzeko ideia ekarri zuenetik.

«Mugarik Gabeko Musikariak erakundeak uste du musika eta musikariek munduko etnien, herrien eta kulturen arteko harmoniaren, bizikidetzaren eta espiritu solidarioaren aldeko paper garrantzitsua egin dezaketela». Haren jardun esparrua haurrak dira batez ere, «biztanleriaren esparrurik babesgabeena».

Mundu osoan zehar abiatu dituzte hainbat proiektu, behartsuenek beren kabuz bizi ahal izateko, alfabetatzeko, emakumeak ahalduntzeko, hizkuntzak berreskuratze... Duela zenbait urte Gasteizko Gobernuari ideia bat aurkeztu

zioten, eta hark begi onez hartu omen zuen: Pertsona Berdinen Nazioarteko Unibertsitatea sortzea, kanpotik datozenak hemen gizarteratzeko, moldatzeko. Izena kopia tuta, Pertsona Berdinen Kluba egin zutela dio Pinttuk, urtean behin bazkaltzeko biltzen dena. Hala ere, ez dute etsi eta lokal baten bila dabilta ideia hori garatzeko.

Mugarik Gabeko Musikarien sustengua duen Ongi Etorri Errefuxiatuak herri plataforma ere ekarri du hizpide: «Jende horrekin haluzinatu egiten dugu, nazioarteko nekazaritza eta abeltzaintza sare batean daude, eta kanpotik etorritakoak baserrietara eramaten dituzte. Han lan egiten dute, euskara ikasten dute... Horixe da gure ideia».

Hamaika orkestra sustatu dituzte, hainbat musikari bidali dituzte kontzertuak egitera Venezuelara,

Boliviako oihanera, Thailandiara, Georgiara, Saharara... Orain jolas bat prestatzen ari dira, haurrek elkartasuna zer den ikas dezaten.

Erakundearen beste asmo bat Gasteiz musikaren eta elkartasunaren hiriburu bihurtzea omen zen. Urtero, Musikaren Nazioarteko Egunean, ekainaren 21ean, egiten zuten jaialdia ia bertan behera utzarazi diete, ordea, laguntza gehiena kenduta.

Musika-tresna bankuak indarrean segitzen du, gerrako haurrei prestakuntza emateko, musika terapiarik onena dela uste baitu Pinttuk. «Konpromiso bat da, eta Euskal Herriko musika eskolak horrekin bat eginda, gauza ederra da. Hemendik batzuek bonbak bidaltzen dituzte; beste batzuek, musika tresnak. Batzuek gerra sustatzen dute; beste batzuek, musika eta harmonia».



«Munduak jakin dezala herri kurduak musika maite duela», nabarmentzen du Gani Mirzo Bartzelonan bizi den musikari kurduak.
Gani MIRZO





Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:

7

...ETA BERAIEI HERRIETAKO
GATAZKENGANDIK IHESI ITSASORATZEN
DIRA FAMILIA OSOAK, BAINA
MEDITERRANEOKO GOBERNU ASKOK
EZ DITUZTE HARTU NAHI, ETA
NORAEZEAN GERATZEN DIRA ITSASOAN,
ERREFUXIATUEN TRAGEDIA
AREAGOTUZ...



Zein amets zenituen?

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Zer izan nahi zenuen handitzean? Zein amets zenituen?», galdetu diot. Irribarre egin du. «Moja izan nahi nuen –eta segituan eman ditu argibideak–. Aukera handirik ere ez zegoen: ezkondu, moja sartu edo neskato joan». «Eta ez ezkontzea, ez zen bide bat?». «Neskazaharrak baztertu egiten ziren. Lanik txarrenak ematen zitzaizkien. Ez ziren garai onak neskazarrentzat».

Horixe 1940ko hamarkadan jaiotako emakume baten testigantza. Kontu interesgarri pila bat izan arren kontatzeko,

«interesgarria iruditzen zaizu? Bai?» galdetzen dit. Ez du inongo protagonismorik nahi eta grabatzea eta bere izena ematea galarazi dit. «Sina ezazu ‘emakume anonimoa’ edo ‘Resurrección’, izen hori jarri nahi izan baitzidaten, baina amak ez zien utzi».

Orain aunitzez aukera gehiago ditugu emakumeok. Ikaragarri aldatu zaigu egoera belaunaldiz belaunaldi. Aitzinekoen historiak aditzean, ezagutu ez dudana gogortasun baten berri jasotzen dut; ezagutu ez dudana itxitasun baten berri ere bai. Zenbat tabu eta arau pus-

katzea lortu den hainbat emakumeren borrokari esker. Zoragarria da. Orain, berez, gutxi gorabehera nahi duguna egin dezakegu. Munduko bertze puntara bidaia dezakegu, bakarrik edo lagunekin bizi gaitezke, banandu gaitezke eta berri hasi, “neskazahar” hitza ezabatu dugu... Baina, egiaz? Ez al zaio kategoria handiagoa ematen bikotekidea duenari? Ama denari? Eta, ez al da seinalatzen ezberdina dena? Bertzelako amets bat gauzatzen saiatzen dena?

Eta, zuk, zer izan nahi zenuen handitzean? Zein amets zenituen? •

Adinaren tamainak ez du inportarik

**Xabier Mikel
Errekondo**

Adina jendartearen aldagai nagusi bilakatu dugu, pertsonak eta batez ere beren ekintzak sailkatzeraino.

Gaztetatik, xiringarekin ziztatuta nola, odolean daramagu edadearekiko itsumen madarikatua.

Nola liteke larrua jotzen 14-15 urterekin hasi? Hogeitaka urterekin nola ardurak hartzen hasi ere ez baina parrandatik biharamunekoa 11:00etan etxeratu?

Berrogei urtetik gora nola ausartu dantzara, seme-alabak berak adieraziko

dizunean tokiz eta adinez kanpo zaude-la eta erridikulurik ez egiteko.

Berrogeita hamar urtetik aurrera zergatik ez ditugu lagunartean konpartitzen amodioa egitearen eta larrua jotzearen esperientziak, eta are gutxiago goraiatzeko hogeita piko urte genitue-nean bezala?

Zergatik uste dugu 70-80 urterekin larrua jotzearen plazera desagertu egiten dela, sexurako grina bat-batean gabeziak harrapatuta geratuko balitz bezala.

Ardurak hartzen ditugu, baina geure buruari plazer ematea ahazten. Ai-ai-ai,

ze oker gabiltzan. Egin dezagun gogoz nahi duguna adinari begiratu gabe eta azken hatsak deskuiduan harrapa gaitzala.

Gakoa irribarrea da, elikadura, dantza, kirola eta sexuaren pintzelek aurpegian marrazten duten irribarrea. Irribarreak ez baitu zer ikusirik edadearen tamainarekin, ezpainenarekin baizik.

Irribarrea gabeziei begiratu baino ditugun gaitasunak takoi kolpe tinkoz dantzan jartzeak digu ateratzen. Agian horregatik dut hain gustuko Flamenkaren emojiak. •



Gorka Zozaia . @zotz_
Kimikaria

Soluzio bakarra eta galdera pila

Donostiako Aste Nagusi-ko protagonista ei diren su artifizialei begira hantxe ikusi dut berriz ere Marte, piztu eta itzaltzen diren su-ko bolatxoaren artean, argi gorri finkoa. Egiari zor, ia egunero ikusi izan dut aurreko hilabetearen lerrootatik zerura begiratzeko plana proposatu nuenetik. Hodeitzak ez zuen gure lurretan ilargi eklipsea ikustea erraztu, baina, tira, planetak hor izan dira eta askok ikusiko zenituzten. Pertseidek ere eman digute zerura begira egoteko motiborik. Zerura begiratzerik izan ez duzuenok, beharbada proposaturiko problemari bueltaka ibili zarete hilabete honetan. Soluzioa irudira ekarri dudana da: biribil, karratu eta hiruki formadun zuloetatik pasa ahal den solidoa. Baina bigarren galdera bat ere gehitzen nuen, ea edozein hiru formarekin ebatz ote daitekeen problema bera.

Soluzio bakarra iragarri dut eta ez dut bigarren galdera horren erantzunik emango. Kortxo zatiari begira, badirudi espazioko hiru dimentsioak independenteak direla, eta posible litzatekeela beste edozein formarekin ebakitzea elkarzutak diren hiru aurpegiak. Era berean, agerikoa da zuloen dimentsioa, adibidez, ezin dela edozein izan, eta, beraz, galdera bera birformulatzerantz nator gaur: zein baldintza bete behar dituzte forma ezberdineko hiru zulo horiek, hiruretatik pasatzen ahal den solido bat diseinatzea posible izateko?

Aurreratzen dizuet ez dudala nik erantzunik, baina tira, ez da lehen aldia izango lerrootan problema bat ebatzi barik utzi dudana, eta, gainera, galdera bera da interesgarriena. Duela ia bi urte ebatzi gabe utzi nuen “logika problemarik zailena”

deritzona birgogoratzeko baliatuko dut aukera: gizaki bat eta fauno bi ditugu aurrean, fisikoki bereizezinak direnak. Guk gizakia zein den antze-man behar dugu, edonori galdera bi eginez soilik, jakinik fauno batek beti egia esaten duela, beste faunoak beti gezurra eta gizakiak egia edo gezurra esaten ahal duela.

Galdera pila iragarri ditut ere eta zuzenean problema “zailena” ebazten saiatu aurretik, bidea argitu ahal duten beroketa problema batzuk utziko dizkizuet segidan:

–Gela batean zerura eta infernura eramaten duten ate bi daude eta bertan bi atezain. Batak beti egia eta besteak beti gezurra esaten duela jakinik, galdera bakarrarekin ebatzi zein den zerurako atea.

–Egiaren Herrira eta Gezurraren Herrira doazen bideak gurutzatzen diren lekuan pertsona bat dago, zein

herritakoa den ez dakiguna (hots, egiazale edo gezurtia den), eta galdera bakarrarekin egiaren herrirako bidea hartu behar dugu.

–100 kilo pisatzen duten pertsona bik eta 50 pisatzen duten beste bik erreka zeharkatu behar dute gehie-nez 100 kilo onartzen dituen txalupan. Nola?

–Hiru misiolari eta hiru kanibal, bi pertsona sartzen diren txalupa batekin, erreka zeharkatu beharrean dira. Ertz batean ezin dira inongo unetan kanibalak misiolariak baina gehiago izan, jan ditzaketelako, ezta alderantziz ere, ebanjelizatuko dituztelako.

Hori bai, problemak eta galderak bazterrean uzteko soluzio bat ere baduzue gaurkoan Bilbora hurbiltzen ahal zaretenek, nahiz eta soluzio –Aste Nagusi– bakarra ez izan... Gora Marijaia! •



Biribil, karratu eta hiruki formadun zuloetatik pasa ahal den solidoa. Gorka Zozaia

{ koaderno } Iker Barandiaran

Besapean

uzaroan herri hedabide batean lan egin nuen, ETA indarrean izatearen ondorioz –edo hori argudio hartuta– udal-
txe askotan tirabira handiak egoten ziren garaian. Posizioak muturrekoak ziren, ez zegoen erdibiderik. Sasoi hartan, jai egun batean, ezkerrekoa baina abertzalea ez zen zinegotzi batekin topo egin nuen, eta ohartu nintzen besapean neraman egunkaria zein zen propio jakin nahian ari-
tu zela. Eta propio ez nion erakutsi.

Tarteka ezker abertzaleko gazteek haserrea erakusten ziguten haien aldarrikapenei leku gehiago egiteko; EAJkoak kexu ziren ezker abertzaleak gure orriotan halako espazioa zuelako; eta izan genuen espainolisten aldetik boikot eta mehatxurik. Halako kexa, presio eta iritzien aurrean herri hedabidean lan egitea ez zen erraza. Baina, zailtasunak zailtasun, oso lan ona egin genuela bada-
kit, egindako oso gauza gutxiz damutzen naiz, eta argi dut izugarri ikasi genuela; errepikatuko nuke. Gai izan ginen baliabide gutxirekin herriko ekimen desberdinen bozgorailu izateko, haiei babesa emateko eta herritarrentzat hurbilekoa zen hedabide gaurkotu, gazte eta landua egiteko, jende desberdinak etxean astero gustura hartu eta interesa zein atxikimendua batzen zituena. Gurea ezin zen alde bakarrekoa izan, eragile eta herritar asko zeuden atzean eta ziren hartzaile, baina intuizioz eta tentuz jakin genuen herriaren taupadei pulstua hartzen eta hori hauspotzen.

Orduan oraindik jendeak egunkariak erosten zituen. Eta egunkari bat edo beste erosi edo irakurtzeak badu hautaketa ideologiko edo politikotik, uste baino era askoz nabarmenagoan. Jakina, egunkari baten irakurle fidelak izateak ez du esan nahi atzean dagoen alderdi politikoa-
ren –edo enpresa taldearen– iritzi guztiekin bat egiten duzunik, baina ziur egon poliki-poliki iritzi horiek zugarri blaitu eta zure egingo dituzula.

Izan daitezke “Berria”, GARA, “Noticias”, “Deia” eta batez ere “El Diario Vasco” gurean. Horien artean “El Diario Vasco” azpimarratuko nuke bereziki: Franco-
ren estatu kolpea portadan goraipatu zuenetik ez du ez izena ezta jabea ere aldatu (gaur egun PP eta lehen Francoren beste kume batzuk); hala ere, aspalditik Gipuzkoako egunkaririk salduena da. Non eta boto abertzale zein ezkerreko jarrera gehientsuen (izan) duen lurraldean. Euskal Herria Espainiaren atal gisa erakutsi, bertako herritarron arazo sozialak zein lurraldetasunarekin lotutakoak alboratu, eta herri ekimenek abiarazitako inizatibak zezenketekin edo Espainiako prentsa arrosarekin ordezkatzan dituzte bertako orriek.

Herritar gehienek uste dute hautaketa ideologikoa dela “Deia”, GARA, “Berria” edo “Noticias” besapean eramatea, eta hala da, baita ogi mota bat edo beste

Egunkari bat edo beste erosi edo irakurtzeak badu hautaketa ideologiko edo politikotik, uste baino era askoz nabarmenagoan

erostea ere; baina, aldiz, uste dute “El Diario Vasco” bera ez dela inora lerratzen, ongiaren eta txarraren gainean dagoela, “tradiziozko” zerbait. Bai, zera! Hedabide honen erruz egunetik egunera eskumagokoa-
goak, atzerakoiagoak, mesfidatiagoak, espainolagoak eta konformistagoak gara alor askotan. Balio eskasak dira honek gugarri zabaltzen dituenak, eta horri itsu-
mutugor egiten diogu. Hori da kezkaragariena: hain sartuta daukagula etxean, lortu dutela horren guztia-
ren gainean ez hausnartzea, eta are gutxiago kexatzea. Aldiz, herri hedabideari beti eskatu ohi diogu gehiago eta lupaz begiratu ohi dugu. “El Diario Vasco” besapean izango banu, lasai geldituko litzateke zinegotzi hura? Neutraltzat hartuko ninduke? •

infraganti PIRATA PIRATOBICH

Luis Mari Moreno «Pirata» (Errenteria, 1973) musika da. Askotariko aurpegiak dauzka, gozatzen dituen musika moduak adina. Bera ere ez da ondo akordatzzen noiz lotu zen musikara. «Nire amak kontatzen du eskatu nuen lehen oparia eskusoinu bat izan zela, hiru urte nituela. Gaur egun errazagoa da eskusoinu txiki bat topatzea, baina orduan ez. Nire aita erotu beharrean ibili zen eta, azkenean, Donostian topatu omen zuen».

Telebistaren parean, Aragon pailazo familiari begira, hasi zen musika jotzen, ume-umea zela. «Orain Gabi Aragonen seme-alabekin harremana daukat eta askotan kontatzen diet tontoa bezala geratzen nintzela pailazo haiei begira». Pailazoaren ofizioak, jendaurreko jardun zirikatzaile horrek, eta musikak, beraz, betidanik tentatu dute errenteriarra.

Oreretako musika eskolan hasi zen musika ikasten eta Donostiakoan jarraitu zuen. «Musika modernoagoa ikasten hasi nintzen ondoren, jazz, rocka eta bestelakoak. Orduan ez zegoen Musikene eta eskola partikularrak hartzen nituen han eta hemen, irakasle onak zeudela jakiten nuen tokian; Algortan, Madrilen... Musika klasikoa ikasteko aukera gehiago zegoen, baina musika modernoaren bidea egin nahi zuenak, berak topatu behar zituen moduak».

Esan bezala, eskusoinuarekin hasi zen oso txikitatik. Hori izan zen amaitu zuen lehen musika karrera. Gero tronboia, bonbardinoa eta tuba ikasi zituen. Eta, azkenik, saxofoi titulu eskuratu zuen. Horiek dira ofizialki egin dituen musika

Luis Mari Moreno «Pirata» musika da, bere aldaera guztietan. Bandak, txarangak, ezkontza taldeak, telebistako bandak, oholtza handietako musika taldeak, kalean eta oholtzarik gabe aritzen direnak... Musika daramaten tren guztietara igotzen darama bizitza osoa, instrumentua eta umore ona bizkarrean hartuta.

ikasketak. Gaur egun haize instrumentuetan aritzen da nagusiki eta ia guztiak menderatzen ditu. «Txaranga askotan aritu naiz eta bertako kideei instrumentuak kendu eta saltsan ibiliz ikasi dut instrumentu mordoa jotzen. Normalean, baina, saxofoia jotzen dut», kontatu du.

ANDREU BUENAFUENTEREKIN

Piratak oso aurpegi anitzak dauzka. Errenteriako Udal Bandan jotzen du solemnitetez eta bihotzez; ezkontza taldeekin aritu izan da; Rockalean proiektuarekin herriak dantzan jartzen ditu kaletik eta parez pare; eta badaramatza hiru urte Andreu Buenafuenteren «Late Motiv» telebista saioan zuzeneko musika bandan jotzen.

«Oraintxe esan digute beste hiru urterako kontratua berri-tuko digutela. Oso pozik nago, plazera delako saio horretan lan egitea. Telebistan asko lan egindakoa naiz eta oso toki gutxi daude «Late Motiv» bezalakoak, benetan. Familia bat gara. Sekulako giro ona daukagu. Gogoratzen naiz hasi ginenean langile guztiak deitu eta Buenafuente zera esan zigula: «Umore programa bat egin behar dugu. Hemen inork ez du errietarik egingo. Hemen denak gara garrantzitsuak eta taldeko lana da». Niri asko gogorarazten dit zirkuan lan egiteko modua. Sarrerak saltzen dituen akrobata da, pailazoak krispetak egiten ditu...».

«Late Motiv» saioko bandan zuzenean musika jotzeaz gain, bestelako protagonismoa ere hartzen du tarteka Piratak kameraren aurrean, lasaitasun eta naturaltasun ikaragarri. «Ez dut egiten lehenago egin ez dudanez. Baina, orain, ordaindu egiten didate. Kuadri-



Pirata Errenteriako Zumardiko kioskoan. Zenbatetan aritu ote da bertan Udal Bandarekin.

Idoia ZABALETA | FOKU

llan ere pailazokeriatan ari-
tzen dena izaten naiz beti. Ni-
retzat umorea oso garrantzi-
tsua da bizitzan, ezinbestekoa.
Bada Chaplinen esaldi bat izu-
garri gustatzen zaidana: 'Barre
egin gabeko egun bat galduta-
ko egun bat da'. Erabat ados
nago».

IBILBIDE LUZE ETA ASKOTARIKOA

Bere musikari izaera poliedri-
koan ertz gutxi batzuk baino
ez dira goian aipatutakoak. Be-
re ibilbidea luzea eta mami-
tsua baita; Iraultza Fanfarea,
Kulixka txaranga, Incansables
txaranga, Urrats erromeria tal-
dea, Blues Thorpes, Academica
Palanca, LosDelGas, Rockalean,
EuskOrleans...

Eta proiektu horietatik apar-
te, beste hamaika kolaborazio
eta lan egin ditu. Pirritx, Po-
rrrotx eta Marimototsen disko-
etan haize instrumentuak Pi-
ratarenak dira eta Niko Etxart,
Barricada, Marea, Dikers, Or-
questa Mondragon eta beste
hainbatekin ere aritu da.

Une honetan buruan irekita
dituen karpetei buruz galdetu-
ta, barre egiten du Piratak.
«Oraintxe, lau karpeta potolo
ditut: LosDelGas, Rockalean,
EuskOrleans –euskal musika
New Orleanseko estilora eka-
rria– eta Buenafuenteren pro-
grama».

Piratarentzat musikak nahi
adina aurpegi izan ditzake eta
guztiak dira garrantzitsuak.
«Madrilen Academica Palanca-
koekin telebistan lanean ari
nintzen aldi berean Mugariz
jatetxeko ezkontza orkestran
jotzen nuen. Telebistako lanki-
deek galdetzen zidaten ea zer
egiten nuen ezkontzetan jo-
tzen. Nik garbi neukan; nire la-
gunak dira, musika gustatzen
zait, zergatik ez dut joko? Bada
musika mailatan banatzen
duen jendea. Musikak ez dau-



Piratak hiru urte darama Andreu Buenafuenteren «Late Motiv» telebista saioan zuzenean jotzen. Oraintxe beste hiru urterako kontratua egin dute. Idoia ZABALETA | FOKU

ka mailarik, aurpegirik, muga-
rik... baditu uneak; baditu, aka-
so, paretik pasatzen zaizkizun
eta hartzeko aukera duzun tren-
nak. Nik mila tren hartu ditut,
askotarikoak; punka jo dut,
saltsa, jazza, musika klasikoa,
txarangak, herriko banda, Roc-
kalean... denetarik egin dut eta
aukera guztiak baliagarriak
eta duinak iruditzen zaizkit».

Ondo gogoan du jendaurre-
an lehen aldiz aritu zen eguna.
«Herreran izan zen, 13 urte be-

te nituen egunean bertan,
Errenteriako Iraultza Fanfarea-
rekin. Lehenago eskusoinua jo
izan nuen auzoko jaietan eta
jubilatuen bazkarietan. Baina,
kalean, lehen aldia hori izan
zen».

Goi mailako musikaria iza-
teaz gain, jendaurrekoan hazi
egiten da Pirata. Bere proiektu
guztietan garbi uzten du hori.
«Antolatu ditugun talde guz-
tietan zerbait desberdina egin
nahi izan dugu, ez musika ba-
karrik; LosDelGas, Rockalean...
Primerako musikariak dire-
nen kontzertu batera joan,
zein ondo aritzen diren en-
tzun... niri zerbait falta zitza-
idan horrelakoetan. Hain jus-
tu, ikusi nuen lehen
zuzenekoa Orquesta Mondra-
gon izan zen eta liluratuta ge-
ratu nintzen. Javier Gurrutxa-
gak emaztegai baten soinekoa
zeraman jantzita eta Popotxo
ondoan zuen. Nik flipatu egin

nuen. Talde horren oso zalea
izan naiz eta gerora haiekin
jotzeko aukera izan dut. Seku-
lakoa. Gerora, Trapu Zaharra
antzerki taldeko Santi Ugalde-
rekin ere aritu naiz kalean an-
tzerkia egiten... Musika umo-
rearekin, pailazoarekin,
zirkuarekin nahasteko aukera
hori hain ederra iruditzen
zait... Horregatik erabaki nuen
nik ere bide hori lantzea. Mu-
sika bakarrik ere egin dezaket
eta egiten dut. Baina gusta-
tzen zait beste parte hori, jen-
dearen parean aritzea, jendea
zirikatzea, dantzan jartzea, ba-
rre eginaraztea...». Rockalean
proiektuaren helburua, hain
justu, hori da.

Badira musika kalera erama-
teko beste modu batzuk; ban-
dak eta txarangak kasu. Pira-
tak ondo ezagutzen ditu
batzuk zein besteak.

«Errenteriako Udal Banda
oso garrantzitsua da niretzat.

**Une honetan buruan irekita dituen karpetei
buruz galdetuta, hauxe dio: «Lau karpeta
potolo ditut; LosDelGas, Rockalean,
Euskorleans eta Buenafuenteren programa»**

**«Mila tren hartu ditut; punka jo dut, saltsa,
jazza, musika klasikoa, txarangak, herriko
banda, Rockalean... denetarik egin dut eta
aukera guztiak baliagarriak eta duinak dira»**

Hor hasi nintzen. Aitonak bandan jotzen zuen, aitonaren anaiek berdin... Gaur egun utzita daukat, negua Madrilen lanean ematen dudalako eta ezin naizelako entseguetara etorri. Baina, niretzat, Errenteriako Udal Banda ikono bat da eta deitzen nautenean, posible baldin badut, ez dut hutsik egiten».

Pirataren ustez, bandak dituzten herrietan arima berezi bat arnasten da eta bandak zaindu egin behar dira. «Hemen, Oreretan, uztailaren 21ean, madalenetako txupinazoa ez litzateke ulertuko bandak 'txunpa-txunpa' abestia jo gabe. Oso une berezia eta esanguratsua da. Era berean, herrietako banda askok beren jarduna gaurkotu egin behar izan dute, egungo garaietara egokitu. Adibidez, aurten herriko festetan gure banda talde baten laguntzarekin aritu da abesti ezagunen bertsioak jotzen. Sekulako apustua izan da eta emaitza, zoragarria. Zumardia jendez lepo eta jende guztia kantuan».

Txarangen ere asko aritutakoa da. «Txaranga dagoen musikariek herrikoiena da, kalekoena. Badira goi mailako musikariek osatutako txaranga eta badira, era berean, kaleko musikariek osatutakoak, ikasketarik gabekoek. Batzuk zein besteak primerakoak dira. Txaranga herria da, herriari gustatzen zaion musika jotzen duelako».

Txarangako musikaria anonimoa da, taldeko beste bat da, ezinbestekoa txaranga funtziona dezan, baina oharkabean pasatzen dena talderik gabe. Musika munduan ikusten diren ego puztuetatik aparte dago txaranga. «Musika munduan ego asko dago, gaizki ulertutako fama asko. Hori ez

zait batere gustatzen. Nire lana eta igeltsero batena berdinak dira, bakoitza bere esparruan. Nik musikari ona naizela uste dut, nire mugekin, eta egunero ikasten segitzen dut. Lanerako deitzen didatenean, lanera joaten naiz eta ahalik ondoen egiten dut. Edozein ofiziotan bezala. Arazoa da askoren begietara gurea ez dela lana. Hori da aldatu behar den ikuspegia».

PAKETARIK GABE ARITZEA

Bandan, txarangarekin, Rockalean proiektuarekin... kalekalean aritzen da Pirata, ohol-tzarik gabe, entzuleak parean dituela. «Niretzat gozamina da paretarik gabe aritzea, parez pare. Rockalean proiektuan oso erreperitorio anitza jotzen dugu eta oso sentsazio berezia da jendea parean iza-

«Rockalean-en erreperitorio zabala dugu eta oso sentsazio berezia da jendea parean izatea. Oholtza oso handietan jo izan dut, 10.000 lagun en aurrean, eta nahiago dut kalean jo»

«Gaur egun musika urez betetako bidoi handi bat da. Goiko partean olio geruza bat dauka, musika komertziala, goitik ikusten duguna. Horren azpian ur mordoa eta gardena dago»

tea. Nik, esaterako, oholtza oso handietan jo izan dut, 10.000 lagun en aurrean, eta askoz nahiago dut kalean jo. Oso berezia da».

Musikaz bizi da eta ondo daki zein gogorra den hori. «Zenbat lan egin behar den lanik ez egiteko! Krisi une larriak ere izan ditut; musika alde batera utzi eta beste lan batean has-teko gogoia izan dut», aitortu du. «Musikari eta kulturari, oro har, ez zaio baliorik ematen. Horretan erru parte handia daukate telebistek, irratiek eta komunikabideek oro har,

ez dutelako kulturaren aldeko apustu serioirik egiten. Ikusten duguna kontsumitzen dugu. Telebistan eta irradian beste era bateko musika entzungo balitz, kalitateko musika, jendeak hori kontsumituko luke. Baina errazagoa da jendea reggaeton eta antzeko zikinkeriarekin lokartuta izatea, ez dezan gehiegi pentsatu. Niretzat gaur egun musika urez betetako bidoi handi bat da. Goiko partean olio geruza bat dauka eta hori da goitik begiratzean ikusten duguna, musika komertziala den olio geruza hori. Horren azpian, baina, ur mordoa eta gardena dago, hainbeste eta hainbeste estilo eta artista, sekulako aberastasuna... baina hori ez da ikusten». •

Amagoia Mujika Telleria



Musikarako bezala, jendaurreko eta umorerako gaitasun berezia dauka errenteriarra. Idoia ZABALETA | FOKU



Marisol RAMIREZ | FOKU



IKUSMIRA

PENTSIODUNEN BORROKA, OPORRIK GABE

Pentsiodunek ez dute oporrik, entzun ohi da batzuetan, txantxetan. Egia da, ez baitute lanik egin behar, soldatapeko lanik, alegia. Soldatapeko lanik egin gabe bizi dira. Gehienak, nekez. Lanik gabe eta gehienak pentsio duinik gabe. Horregatik, duela zenbait hilabete ekin zioten borrokak ere ez du oporrik. Saiatu ziren batetik eta bestetik desaktibatzen, oraingo miseriatik lehengo miseriara itzul-tzea eskainita, baina pentsiodunek «aski da» esan dute. Herenegun manifestazioa deitu zuten astelehenerako, Bilbon. Aste Nagusia politizatzeke asmo maltzurra egotziko ote die baten batek? «Urte osoa daukate protesta egiteko, orain jaietan gaude» entzunda baikaude aspaldi luzetik gure herrietako jaietan. Eta bai, urte osoa dute beren pentsio ziztrinak hil amaierara arte helarazteko; urte osoa, jaiak barne. Miseriak ez du oporrik hartzen, eta pentsiodunak erakusten ari dira beren borroka ere ez duela atsedean hartzeko asmorik.

Xabier Izaga Gonzalez



Garazi Goia - @Garazi Goia
Idazlea

Galdu dugun denboraz

Eguraldiaz eta Brexitaren inguruko azken albisteez hitz egitea errazena izango zen Londrestik hau bezalako zutabe bat idazten ari den edonorentzat.

Amaitzen ez den mikroklima honetan daramatzagu bi hilabetetik gora, eta eguraldiaz hitz egiten ematen dudana denbora norbaitek neurtuko balit erabat britainiar bihurtu naizela esango lukete; baita beroa ezin dudala jasan zenbaitetan errepikatu dudana norbaitek kontatu badit ere. Bestalde, Europar Batasunarekin akordio bat ez lortzea hipotesi batetik probabilitate gehien duen emaitza denean, eta kaos eta krisi politiko bete-betean gaudela, Theresa May bakarrik gelditzen ari da. Ez nau harritzen, Europar Batasuneko lurraldeetako presidenteeekin bilera pribatuetz baliatzen hasi beharra izan duela.

Baina gaur, denboraz arituko naiz. Edo, hobeki esanda, duela urte batzuk beste zerbait egiten ematen genuen denboraz.

Erresuma Batuan, Telekomunikazio eta komunikabideen arautzaileak egin duen azterketa luze batek telefono mugikorrek eta beste gailu digitalek sortu diguten dependentzia du ardatz nagusitzat, eta ehunka datu bildu dituzte. Besteak beste, azken hamarkadan giza-kion jarrerak eta ohiturak nola aldatu diren aztertuz, orain artean ez bezala teknologiak gure bizitzetan izan zuen eragin dramatikoak azpimarratuz. Hamarkadaren datua esanguratsua da, 2008. urtea izan zen-eta Erresuma Batuan smartphone-a benetan "sartu" zen urtea, urte bat lehenago lehenengo iPhone-a Apple etxeak merkaturatu ostean.

Hemen jartzen dizkizuet txosteneko datu batzuk: Erresuma Batuan populazioaren %78k dauka smartphone bat, eta 16 eta 24 urte artekoetara mugatzen bagara, %95ek. Esnatu eta hamabi minutu baino ez dira pasatzen lehe-

nengoz telefonoa begiratu arte; eta bost heldutik bik bost minutu baino ez dituzte hartzen. Internet ezinbestekoa dela diote %92k. Are gehiago, helduen %50ek diote beraien bizitza aspergarria izango litzatekeela Internet telefonoan eskuragarri ez baleukate. Orokorrean, denontzat nahitaezkoa bihurtu da aparailu digitala, eta haren falta egun askotan jasateko ez gaude prest. Edonork esango luke beste harreman emozional batez ari garela. Amaitzeko, datu hau izan da goiburu gehienek egin duten aukera: batez beste egunero 2 ordu eta 28 minutuz erabiltzen dugu Erresuma Batuan telefonoa, eta 18 eta 24 urte artekoek, berriz, 3 ordu eta 14 minutu ematen dituzte telefonoan.

Beti hor gaude, nahi duzunerako, nahi duzunean. Hemen esaten den bezala, beti «on». Oporretan dagoen bitartean laneko mezuak ez dituela irakurriko dioen horri harriduraz begiratzen diogu. Batek baino gehiagok esan dit pare bat egun telefonorik gabe pasatu ostean, pertsonalitate alda-

keta bat izan dutela; erdi-brometan, erdi-serio, baina askorentzat esperimendu zaila izango zen. Dependentzia fuerteegia da.

Baditu eragin negatibo asko ere, noski, eta txostenean zeharka biltzen dira batzuk –%15ek beti lanean daudela diote; %54k familia eta lagunen harremanen dinamika eta kalitatea aldatu ditzutela diote. Kezkagarria dela garbi dago, hainbestearino, Google bera ere neurriak sartzen hasi dela Interneten ematen dugun denbora kontrolatzeko. Bide batez, badakizue urte honen hasieran Theresa Mayk "bakardadearen ministro" bat izendatu zuela? Munduan beste inon ez zegoen antzeko arreakaririk. Teknologia sortzen ari den "bakardade berri bat" bere erronketako bat da, hain zuzen.

Telefonorik gabeko garaiak nostalgiaz gogoratzen ditut orain, bi ordu eta hogeita zortzi minutu horiek zertan emango nituzkeen pentsatuz. Nire bizitza ziurrenik aberatsagoa izango zela baieztatuz. •



«Zertan emango nukeen telefonoan emandako denbora?»

Gari Garaialde | FOKU

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



SEEBERGER ANAIK. MEDIATHEQUE DE L'ARCHITECTURE ET DU PATRIMOINE - MINISTERE DE LA CULTURE - FRANCE

DUELA IA MENDEBETE, XIBERTAKO GOLF ZELAI IREKI BERRIAN

XX. mendearen hasieran, Biarritzen biltzen ziren Europako dirudun garrantzitsuenak. Milioi asko zituztenak eta aristokratak, beren luxuzko jantziekin, bertako hondartzetan pasieran ibiltzen ziren eta dantzaldi eta festetan parte hartzen zuten. Klase sozial horrentzat Biarritz udako geltokirik onenetakoa zen, bertako hotelak, jatetxeak eta tenisa, bridgea eta golfa praktikatzeko kirol instalazio ugariak tarteko. Biarritzeko inguruetan golf zelai handi bat egiteko asmoz, 1924an Biarritz Anglet la Forêt elkarteak sortu eta Angeluko basoaren eta dunen 150 hektarea erosi zituzten. 1925ean, mundu osoan golf zelaia diseinatzeko aritutako Tom Simpson adituak hartu zuen Xibertako golf zelaia egiteko proiektuaren ardura. 1928az geroztik, Xibertan jokatu zituzten Estatu frantsesean egindako lehen golf txapelketa profesionalak. Artikulua ilustratzen duen irudia Jules (1872-1932), Louis (1874-1947) eta Henri (1876-1956) Seeberger anaiek egin zuten, 1929an, Xibertan.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*

